BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

243

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 16koa, Osasuneko sailburuordearena, 2024ko deialdian aurkeztutako osasunaren alorreko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak emateko. Lerroa: «Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzea».

Osasuneko sailburuaren 2024ko apirilaren 30eko Aginduaren bitartez (2024ko maiatzaren 14ko EHAA, 93. zk.), osasunaren alorreko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2024ko deialdia iragarri zen.

Agindu horrek 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurkeztu diren eskabideak lerro bakoitzerako prozedura desberdin bat hartuta izapidetuko dira (6. artikuluan adierazitakoarekin bat), eta bakoitza bere ebazpenarekin amaituko da. Osasuneko sailburuordeari dagokio agente eskatzaileek proposatutako gai guztiak erabakitzeko ebazpenak ematea, Balorazio Batzordeak proposatuta.

«Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko» lerroan aurkeztu diren eskabideak eta Balorazio Batzordearen proposamena aztertu dira, eta harekin ados egonik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean jasota dauden eskaerak onartzea, zeinak ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko aurkeztu baitira.

Bigarrena.– II. eranskinean jasota dagoen eskaera ukatzea, zeina ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko aurkeztu baita, eta horretarako egon den arrazoia ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratzen denetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan, hargatik eragotzi gabe egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 16a.

Osasuneko sailburuordea,
ENRIQUE FERNANDO PEIRÓ CALLIZO.

I. ERANSKINA

Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko eskaeren zerrenda, 2024ko deialdian aurkeztu eta onartuak.

Espediente-zenbakia	Jarduera areagotzeko proposatu den pertsona	Agente Onuraduna	Dirulaguntza (euro)
2024222001	Isabel Artieta Pinedo	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	45.364,38
2024222002	Isabel Urrutia Landa	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	33.178,75
2024222004	Myriam Aburto Barrenechea	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	33.178,75
2024222005	Ainara Azueta Etxebarria	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	66.357,49
2024222006	Beatriz Tijero Merino	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	66.356,80
2024222007	Begoña Loureiro Gonzalez	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	82.946,86
2024222008	Gonzaga Garay Aramburu	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	67.957,47
2024222009	Maria Dolores Pastor	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	82946,92
2024222010	Marcos Fernandez Barriales	Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	81.913,92
2024222011	Vanessa Arosa Carril	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	82.946,91
2024222012	Jose Maria Marimon Ortiz de Zarate	Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	50.023,28
2024222013	María Isabel de las Cuevas Teran	Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	39.911,93
2024222014	Ainhoa Ulibarri Ochoa	Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua Elkartea	37.134,00

Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzea, GUZTIRA: 770.217,46 euro

II. ERANSKINA

Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzeko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako (I+G) 2024ko deialdian aurkeztu diren eta atzera egiteagatik ukatzeko proposamena egin zaien eskaeren zerrenda, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. artikuluaren arabera.

Espediente-zenbakia	Jarduera areagotzeko proposatu den pertsona	Agente koordinatzailea
2024222003	Carmen Paz Pascual	Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkartea